

Liburuak

KRITIKA


Habitat.

Katixa Agirre.

Elkar. 220 orrialde. 17,50 euro.

Helduen literatura

Amaia Alvarez Uria



Kafea ala txokolatea?

HABITAT: espezie baten bizitza eta garapenean laguntzen duen baldintza biologiko, klimatiko edo inguruko multzoa edota baldintza hauek betetzen diren espazioa. Etxebizitza da jendearentzako espazio hau, habitat hau, bai eta narrazio hauen arteko haria ere.

Sofa: azalean agertzen zaigun altzari honen inguruan bildu ditzakegu ipuin guztietako gertaerak eta, bide batez, bizitzeko behar ditugun oinarritzko ekintzak eta etxeetan gertatzen diren sozializazio saio guztiak. Jan edan eta lo egiten dugu bertan, baita sexua eta solasaldiak ere.

30 urte: Adin horren bueltan daude narraziotan agertzen zaizkigun pertsonaia ia guztiak, beraz, gurasoen etxetik kanpo egon beharreko momentu hori ailegatuta eta bikotearekin eta bankuarekin ezkondu eta umeak izateko garaia artean, omen. Gaztaroari agur esateko unea eta helduaroan formal sartzeko ordua, agidanaz.

Liburu honetan pertsonaia eta egoera batzuekin identifikatuko zara adin tarte horretan bazaude edo etxebizitzaren gaiari bueltaka, —edo ezagunak izango dira zuretzat, behinik behin— eta idazleak lortuko du zu hiru lerrotan istorioan sartzea, girotea, zuk eszena ikustea. Baina zer da etxebizitza? Eskubidea, betebeharra?

Etxebizitza askatasuna da, norberaren lurraldea. *Bere loa arina* da edo *Guy Fawkes-en traizioa* ipuinetan agertzen zaizkigun protagonistak bakarrik bizi dira euren pisu txikietan poz-pozik espazio horretan beste norbait sartzen den arte.

Etxebizitza babeslekua da. *Pijama festa* eta *Hosting* ipuinetan aterpe bila datoz bi gonbidatu eta etxeok egiten dieten harrerari buruzkoak agertuko zaizkigu, besteak beste. Egunerokotasunean etena dago bi hauetan, ondorio desberdinekin datorrena.

Etxebizitza estatusa, jabegoa, morrontza da. *Jaun eta jabe* eta *Feng Shui-aren errua* ipuinetan hiritik herrira joandako bikote bat agertzen da lehenengo ipuinean, etxea konpondu eta konpondu dabilena, eta bigarren urbanizazioetako etxeak saldu nahi duena goi mailako auzo bateko txalet bat ezin ordaindu dabilen batekin topatuko da.

Etxebizitza norberaren isla da, identitatearen luzapena. Eredu pribatu murgiltzen gara beste baten etxean sartzean eta honek etxeoandre edo gizona indartu edo ahuldu dezake, bere jabea buruz hitz egingo digu eta bere eremuan barneratuko. Honekin batera sentimenduak azalduko dira orrien artean, bakardadea eta beldurra besteen gainetik.

Jendea elkarrengandik urrundu edo elkarrengana hurbildu daiteke etxeetan, gatazkak sortu eta gaudituko dira, baina dena amaituko da kafe bat, garagardo bat, Cola Cao bat hartuz edo txokolate izozkia janez, —azken hau pelikula eta telesail angloetatik hartutako ohitura goxoa; ai, globalizazioa!—. Hau guztia, Katixa Agirrek proposatutako etxeetan, behintzat, bai. ■

Bakartia izan behar zuen irlan

“Galizieraz argitaratu zuten, gaztelaniaz ere bai, euskaraz behar zuen orain. Ilusio handia egin zidan, trafiko gutxi baitago bi kulturen artean, hain gertu geografikoki eta hain urrun, aldi berean” esan zuen Albert Sanchez-Piñol kataluniarrak aldizkari honetan (2185. zkia.). *La pell freda* elebe-



Larrua hotz.
Albert Sanchez-Piñol.
(Itzul.: Lander eta Zigor Garro).
Txalaparta.
280 orr. 18 euro.

rriaz ari zen, euskaraz argitaratu izanaz. Lander eta Zigor Garrok egin dute itzulpena, eta Txalapartak publikatu du. Kontatzen duen istorioa, independentzia osteko Irlandan kokatzen da: matxino ohi batek irla galdu batera joko du, egurats-teknikari izateko. Bakarrik egon behar zuen irlan, baina sorpresa handiak izango dira gauez. ■

Dialektologiaren funtsak ezagutzeko

Lan mardula argitaratu du Iñaki Caminok Elkar argitaletxearekin: *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Tokian tokiko euskalkiez geroz eta lan gehiago argitaratzen diren honetan, harago joan nahi duen irakurleak plazer izango du liburu hau irakurtzen. Bertan eskaintzen zaizkio dialektologiaren alderdi teoriko eta metodologiko zehatzak, adibide ugariarekin. Bilatutako adibideak, gainera, ugariak dira, hala nola, eremu erromaniko eta germanikoetakoak, euskalkietatik hartutakoak bazterrean utzi gabe. Horiei eskerrak, irakurleak eremu dialektalak nola sortzen diren jakin ahalko

du, zein motatakoak diren edo dialektoa zer den zehazki. ■



Dialektologiatik euskalkietara...
Iñaki Camino.
Elkar.
630 orrialde.
30 euro.